

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

**LEHEN HEZKUNTZAKO 5.MAILAKO IKASLEEK DITUZTEN
PERTZEPZIOAK ETORKIZUNEKO IKASKETEI ETA LANBIDE
BOKAZIOEI BURUZKOAK GENEROAREN IKUSPUNTUTIK**

Egilea: Saida Castresana Gonzalez

Zuzendaria: Teresa Nuño Angos

Leioan, 2016ko maiatzaren 31n

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptualak: aurrekariak eta egungo egoera	4
1.1. Hezkidetza	4
1.2. Sexu-genero sistema, estereotipoak eta rolak.....	5
1.3. Genero estereotipoen barneratzea eta eragina lanbide bokazioetan	6
2. Metodologia.....	8
2.1 Helburuak	8
2.2.Ikerketa galderak	9
2.3. Ikerketa gauzatu den testuingurua	9
2.4.Parte-hartzaileak	9
2.5.Ikerketa tresna.....	10
3. Lanaren garapena.....	12
4. Emaitzak	12
5. Ondorioak	20
6. Ikerketaren ahultasunak eta hobekuntzarako proposamena	22
7. Hezkidetza sustatzeko zenbait proposamen	23
8. Erreferentzia bibliografikoak.....	23
ERANSKINAK	26

LEHEN HEZKUNTZAKO 5. MAILAKO IKASLEEK DITUZTEN PERTZEPZIOAK ETORKIZUNEKO IKASKETEI ETA LANBIDE BOKAZIOEI BURUZKOAK GENEROAREN IKUSPUNTUTIK

Saida Castresana Gonzalez

UPV/EHU

Gaur egun oraindik sexismoaz kutsaturiko gizartean bizi gara. Jakina da 5. Mailako ikasleen etorkizuneko ikasketei buruzko aurreideiak genero estereotipoz kutsatuta izaten hasten direla. Hori dela eta, lan honen xedea da Lehen hezkuntzako 5. mailako ikasleek dituzten pertzepzioak etorkizuneko ikasketei eta lanbide bokazioei buruzkoak ezagutu eta aztertzea generoaren ikuspuntutik. Horretarako hainbat adituen ikerketen emaitzak kontuan hartu dira eta ikastola bateko 5. mailako bi geletan ikerketa kuantitatibo xume bat aurrera eraman da. Ateratako emaitzak kontuan hartuz, planteatutako helburuei eta galderei erantzuna eman zaizkie. Lan hau etorkizunean hezkidetzaren garrantzia azpimarratzeko lagungarria izan daiteke.

Sexismoa, lehen hezkuntza, generoa, lanbide bokazioak, hezkidetzak

Como bien se sabe, todavía nuestra sociedad está contaminada por el sexismo. Se sabe que las ideas previas que tiene el alumnado de 5º de primaria sobre sus futuros estudios y profesiones empiezan a estar sesgadas por los estereotipos de género. Por ese motivo, el objetivo de este trabajo ha sido conocer y analizar las percepciones que tienen las y los escolares de 5º de primaria sobre sus vocaciones académico-profesionales, desde una perspectiva de género. Para ello, se han tenido en cuenta los resultados de varios estudios y se ha hecho una pequeña investigación cuantitativa en dos aulas de 5º curso. En base a los resultados obtenidos, se ha dado respuesta a los objetivos y preguntas planteadas en la investigación. Este trabajo puede ser útil en un futuro para destacar la importancia de la coeducación.

Sexismo, educación primaria, género, vocaciones laborales, coeducación

Nowadays, our society is contaminated by sexism. It is known that the prejudices that pupils from 5th year of primary education have about their future studies and professions are based by gender stereotypes. For that reason, the main objective of this work was to know and analyse the perceptions from pupils of 5th grade about studies and labour vocations, from a gender perspective. In order to that, it has been taken into account information of various studies and it has been done a quantitative small research in two classrooms of 5th year. Based on obtained conclusions, the hypotheses and questions raised in the investigation have been answered. This work can be useful to emphasize the importance of coeducation in the future

Sexism, primary education, gender, labour vocations, coeducation

Sarrera

Dakigunez, historian zehar emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak egon dira, azken hauek eskubide gehienak hartuz, eta ondorioz emakumeei hauek ukatuz.

Egoera aldatzen joan den arren, desberdintasun hauek oraindik oso nabarmenak dira gure gizartean. Honek eragin handia du ikasleen hainbat alderditan, horietako bat haien etorkizunari buruzko erabakiak hartzearena izanik. Hori saihesteko zenbait alderdi aztertu behar dira: familia, lan-merkatua eta kasu honetan garrantzitsuenak, eskola.

Aipatutako hiru eragile horiek ezinbesteko garrantzia dute ikaslearen bizitzan, izan ere gizartean bizitzen irakasten dute, eta bertan ikusiko dira genero-estereotipoak, eta honekin batera aurretik aipatutako desberdintasunak. Horrek haien erabakiak estereotipatu gabeak eta eragozpenik gabe hartzeko aukera mugatuko die, eta beraz, berdintasunean bizitzeko aukera.

Lan honetan honako hau aztertu nahi izan da: ea Lehen Hezkuntzako ikasleek, 5. mailakoek hain zuzen ere, haien etorkizunera begira nahi duten lanbidea aukeratzeko estereotipatu gabeko aukerak hartzen dituzten. Hau da, ea neskek zein mutilak gizartean dauden genero-estereotipoen menpe dauden edo ez. Horretarako, kontuan izan behar dugu zenbateraino daukaten barneratuta ikusi daitezkeen zenbait genero-estereotipo. Aldi berean, kontuan hartuko da, kasu honetan irakasleek, nola lantzen duten gai hau. Eusko Jaurlaritzako Oinarrizko hezkuntzarako dekretuan, tutoretza eta orientazio arloan aipatzen den moduan, aniztasunaren trataerarako hainbat neurri daude, baina aniztasun hauek batez ere premia berezietan oinarrituta daude; aldiz orientazio ez sexista Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zentratzen da.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Hezkuntza sisteman hezkidetzaren eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko plana aztertuz (2013), aipatzen da nola oraindik desberdintasunak egoten jarraitzen diren emakume eta gizonen artean. Batez ere, gizonen ustezko lanbideak (maskulinizatuak omen direnak) gure gizarte patriarkal honetan prestigio handiegia dute emakumeen ustezkoak baino, nahiz eta gero eta emakume gehiago dauden maskulinitzat jo izan ziren ikasketetan, eta horrek aipatutako desberdintasunak sortzen ditu, hala nola, ekonomikoak, gizarte-prestigiokoak.

Aipatutako desberdintasun eta genero estereotipo horiek umeen erabakietan eragin handia izan ditzakete, eta horregatik lan hau egitea erabakitzearen arrazoia. Ikerketa, Txurdinagako ikastola batean 5. mailako ikasleek dituzten pertzepzioak etorkizuneko ikasketa eta lanbide bokazioei buruzkoak antzematea sexuaren arabera, genero analisia egiteko izan da helburu nagusia.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

Ikerketari ekin baino lehenago, garrantzitsua da hezkidetzari buruzko informazioa eta gaur egun arte egin diren zenbait ikerketa aztertzea, egon den garapenaren irudipena izateko.

1.1. Hezkidetzaz

Lehenik eta behin, beharrezkoa ikusten da hezkidetzaz zer den definitzea. M^a Luisa Fabraren arabera (1996), hezkidetzaz neska eta mutilen arteko elkarrekintza sustatzea da generoko estereotipoak, sexuaren araberako diskriminazioak eta desberdintasunak eragiten dituzten baldintzak gainditu eta menderakuntza-ereduaren kontzientzia hartzeko helburuarekin.

Hezkidetzazren beste definizio bat honako hau litzateke:

La coeducación se entiende como un proceso intencionado de intervención a través del cual se potencia el desarrollo de niños y niñas partiendo de la realidad de dos sexos diferentes y encaminada hacia un desarrollo personal y unas construcciones sociales comunes y no enfrentadas (Alariok eta Anguitak, 1999, 40 or.).

Hori esanda, berdintasunak paper garrantzitsua du hezkidetzaz, izan ere berdintasuna irakastea, ezinbestekoa da hezkidetzaz aurrera eramateko. Adibide bezala martxoaren 8an Emakundek aurrera eraman zuen kanpainak gogoratu du azken hamarkadetan gizarteak aurrera egin duela berdintasunerantz, eta aldi berean ohartaraziko du atzera egitearen arriskua dagoela. Izan ere, neskatilek, txikitatik, genero rola barneratzen dituzte behe-mailako gizakiak izango bailiran hazten ikasten dutelako. Mutikoak, berriz, goi-mailakoak izateko sinesmenean bilakatzen dira. Horretan, eskolak, nahiz eta ez izan instituzio edo erakunde bakarra, jarrerak eta balioak transmititzeko gaitasuna baitu.

Hala ere, garrantzitsua da aipatzea hezkidetzazren kontzeptua beste kontzeptu batzuekin nahastu egin dela historian zehar, hala nola, eskola mistoarekin. Eskola mistoa 60ko

hamarkadan sortu zen Hego Euskal Herrian, nahiz eta era orokorrean ez zen ezarri 70. urtera arte. Neskek eta mutilak bereizita ikasten zuten ordura arte. Eskola mistoa sortzerakoan, ordea, ez zuten planteatu ere zer ekar zezakeen neskak eta mutilak espazio fisiko berean elkartzeak (Del Amo, 2009). Gogoratu behar da neskak eta mutilak nahastuta egoteak berez ez dakarrela balioen eta ideien irakaskuntza berdina (Subirats, 1994).

Baina, zergatik hezkidetzaren beharra hezkuntza eremuan? Zer dakartza horrelako beharrak asetzeak? Antzinatik, emakumeak eta gizonak rol desberdinak barneratu egin dituzte, eta hemen hezkuntzak paper garrantzitsua izan du, baita gizarteak ere. “Rola”, pertsona bati edo talde bati egokitzen zaion zeregin multzo bat izango litzateke, kultura eta talde jakin batean sartuta (Bartolomé, 1993).

Esan behar da, gaur egun aldaketak ikusi daitezkeela rol horietan, baina oraindik lana egin behar da. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan aldaketa horiek suertatzeko, mugimendu feministek zein pedagogia-berrikuntzako kolektibo desberdinek 1970eko eta 1980eko hamarkadetan hezkidetzaren aldeko mugimenduak aurrera eramaten hasi ziren. Ondoren, 1991 eta 1999 urteen artean, hezkidetzako ekintzen bultzatze eta bilakaera LOGSE izeneko erreformarekin etorri zen, non hainbat ekimen gauzatu ziren irakasleen prestakuntzan (Emakunde, 2005). Hala ere, oraindik lan asko dago egiteko.

1.2 Sexu-genero sistema, estereotipoak eta rolak

Sexu-genero sistema ekintza biologikoen eta sozialen arteko bereizketa egiteko balio dizkigun kontzeptuak dira. “Sexu” hitza erabiltzen da ezaugarri biologikoak izendatzeko; “genero” hitza, aldiz, gizarte bakoitzak sexu bakoitzari ematen zaion gizarte eraikuntzari deritzo. Beste alde batetik, Subiratsek (1994), generoak sexu bakoitzari inposatutako arau, jokabide eta itxaropen multzo bat dela dio, eta gainera hierarkia bat sortzen du: maskulinoa femeninoaren gainean. Reizabal, Eldua eta Areizagaren arabera (2015, 17.) “Elementu horiei genero-agindu esaten zaie, eta kulturaren eta une historikoaren arabekoak izaten dira, baita etnia eta klase sozialaren arabekoak”. Beraz, genero-agindu horien arabera, genero-rolak sortzen dira. Genero rol hauek tradizionalki horrela bananduta egon dira: ekoizpen rola gizonentzat eta zaintza rola emakumeentzat. Estereotipoak, aldiz gizartean hedatuta dauden iritzi edo usteak izango dira (motibazioak, ezaugarri fisikoak, adibidez).

Begoña Salasek (1997:34) oso ondo bereizten ditu taula honetan gizarreak erreproduzitzen dituen estereotipo desberdinak:

ESTEREOTIPOA	MASKULINOA	FEMENINOA
Gaitasunak:	Inteligentzia, indarra, independentzia ...	Afektibitatea, sentiberatasun erantzukizuna...
Balioak:	Agresibitatea, anbizioa, jauzkortasuna, boterea...	Otzantasuna, ulerkortasun ahultasuna, samurtasuna...
Portaera-ereduak:	Estandar maskulinoa, estereotipoa indartzeko (mutilek ez dute negarrik egi behar, gizonezkoek ez baitute halakorik egiten...)	Estandar femeninoa, estereotipoa indartzeko (neskatoak ez dira zikindu behar, ez zaitez mari-mutila izan...)
Kolore bat:	Urdina	Arrosa
Espazio bat munduan:	Esparru publikoa	Esparru pribatua
Eredu sexual bat:	Heterosexuala (rol aktiboa)	Heterosexuala (rol pasiboa)
Sexu-genero bat:	Gizona-maskulinoa	Emakumea-femeninoa
Funtzio biologiko bat:	Ez zaio aitortzen	Amatasuna

1.Taula. Gizarreak transmititutako estereotipoak (Salas 1997).

Ikasleek nola barneratzen dituzten rol eta estereotipo horiek aztertzea ezinbestekoa da lan honetan burutu den ikerketarekin aurrera jarraitzeko. Hau da , ezagutzeko zer eragina duten haurrengan genero rolek eta estereotipoek etorkizuneko ikasketak eta lanbideak aukeratzerakoan. Horretarako gaur egun mantentzen diren zenbait rol nondik datozen jakitea ere beharrezkoa da, etorkizunean eskolak dituen gaitasunaz eta eraginkortasunaz hori aldatu ahal izateko, baita lantzen ari garen gaian ere, kasu honetan lanbideetara bideratuta.

1.3 Genero estereotipoen jabetzea/barneratzea eta eragina lanbide bokazioetan

Hainbat alderdi hartzen dituzte parte prozesu honetan, gehienak eskolan suertatzen direnak. Hala ere, ezin da esan eskola genero estereotipoen jabetzearen arduraduna denik. Izan ere, umeek eskolaratzen direnean, jarrera eta ideia batzuk barneratuta dituzte, sexu bakoitzari dagokionari buruz (Arenas, 2006). Ondoren, eskolan bertan eta kanpoan ikasleek haien familien eta talde berdinen eragina jasotzen jarraitzen dute.

Familiak umeen lehenengo etapan ezinbesteko garrantzia du. Izan ere, familia umeek kontaktua izango duten lehenengo instituzioa izango da, eta horrekin batera baloreak eta sinesmenak transmititzen hasiko dira, haien jarrera osatuz. Rubinek, Provenzanok eta Luriak (1974) egindako ikerketa baten arabera, gurasoek modu desberdinean tratatzen

dituzte haien seme-alabei neska edo mutila diren arabera. Horrek esan nahi du txikitatik estereotipatutako jarrerak eta ideiak hasten direla barneratzen (Livier, 2003).

Beraz, familian emakumea eta gizona izateak zer esan nahi duen adierazteko ikuspegi estereotipatuak transmititu egiten dira. Umeek ikasten duten gehiengoa asimilazioaren bitartez egiten da. Horregatik, esparru familiarrean eta laborean emakumearen rola bigarren mailakoa da, honako datu hauetan erakusten denez (García eta al., 2002):

- Espainian lanaren 2/3 ez dago ordainduta eta %80a emakumeek egiten dute.
- Etxeko lanak emakumeen %75 egiten dute, gizonek bakarrik %7.
- Emakume gehienak zerbitzu sektorean egiten dute lan.

Datu eta errealitate horiek umearen sozializazio prozesua zehaztu egiten dutenak dira. Horren arabera, umeek normaltzat hartzen dute sexu bakoitzarentzat generoz estereotipatutako honako portaera eta ideia hauek: zientzia, teknologia, kirola eta abarrekoak maskulintzat jotzen da, eta sentimenduak, laguntza eta etxeko eta zaintza lanak femenintzat, hau da, emakumearentzat (García eta al., 2002).

Honekin amaitzeko, esan daiteke egoeraren arabera aldaketak aurkitu daitezkeela. Adibidez, frogatu egin da amak ordaindutako lan bat izatekotan eta boterearen balantzan desoreka bat egonda, umeen genero identitatea aldatu egiten dela. Beraz, lan egiten duten amen alabak ez dira hain “femeninoak”. Horrenbestez familia horien seme-alabak ez dituzte genero roletan desberdintasunik ikusten. Izan ere biak, aita eta ama, bai kanpoan bai etxean lan egiten dute (Livier, 2003).

Tomék eta Ramblak (2001) dioten arabera, genero eta hezkuntzari buruz egindako ikasketei esker, jakinda dago nola sortu, indartu eta erreproduzitzen diren estereotipoak eskolan. Hainbat eragile desberdin aurkitu daitezke eskolan, hala nola, ageriko curriculuma, curriculum ezkutua, espazioa, testu liburuak, irakasle-ikasleen interakzioak, irakasleek ikasleengan dituzten itxaropen ezberdinak sexu-generoaren arabera eta abar.

Eskola ezarrita dauden baloreen igorlea edo aldaketen eragilea izan daiteke (Fuenlabradako Udaletxea, 2011). Desberdintasun edo balore horien jarraipena curriculum ezkutuan mantentzen dira (Burn,1996). Horren bitartez, irakasleek rol femenino eta maskulinoen desberdintasunak sustatzen jarraitzen dute.

Burnek (1996) honako sozializazio diferentzialaren prozesu desberdin hauek azaltzen ditu curriculum ezkutua ezartzen dituenak:

- Emakume eta gizonen arteko banaketa hezkuntza sisteman, rolen eredu moduan aritzen dena.
- Testu liburuak eta material didaktikoak, non estereotipoak erreproduzitzen jarraitzen diren.

Beharrezkoa da azpimarratzea testu liburuen garrantzia, izan ere oraindik irudietan genero estereotipoak agertzen direla, eta gehienetan ustezko femeninoarekin eta emakumeekin lotura dituztenak ez direla agertzen erakusten dituzte, eta horien bitartez genero estereotipoak transmititzen dira. Lomasek (1999) hainbat ikerketetan oinarrituz ondorioztatzen du testu liburuek begirada androzentrikoa islatzen jarraitzen dutela.

Irakasleen jarrera eta itxaropen desberdinak. Adibidez, ikertzaile feministek frogatu dute mutilek irakasleen aldetik atentzio eta laguntza gehiago jasotzen dituztela. (Arenas, 2006)

Aipatutako eragile guztiek lanbidea edo ikasketak aukeratzeko orduan funtsezko ondorioak izango dituzte. Subiratsek (1991) aipatzen duen moduan, curriculum ezkutuaren bitartez ikasleekin izandako jokaeraren arabera, neskak menpeko jarrera bat izango dute, balio gutxiko lanbideak aukeratzera eramango dizkietenak; mutilekin, aldiz, kontrakoa gertatuko litzateke (Livier, 2003).

2. Metodologia

Hasieran aipatzen den moduan, atal honetan erabilitako ikerketa-metodologia garatzen da. Bertan azaltzen dira zeintzuk diren helburuak, ikerketa galderak, ikerketa gauzatu den testuingurua, parte-hartzaileak eta ikerketarako erabili den galdetegia.

2.1 Helburuak

- 5. mailako ikasleek dituzten pertzepzioak etorkizuneko ikasketei eta lanbide bokazioei buruzkoak antzematea, sexuaren arabera.
- 5. mailako ikasleek etorkizunari begira dituzten asmoak lanbideei dagokienez ezagutzea, sexuaren arabera.

2.2. Ikerketa galderak


- Ikasleak aisialdian erabiltzen dituzten jostailuak estereotipatuak izaten jarraitzen dira?
- Lanbide maskulinoak eta femeninoak egoten jarraitzen dira ikasleen pentsamoldean?
- Ikasleen erabakiak lanbideei dagokienez gizonei eta emakumei egokitutako estereotipoen arabera dira?
- Etorkizunari begira, bizitza-eredu eta estereotipo tradizionalak irudikatzen dituzte? (neskak ezkontuta eta seme-alabekin, mutilak lanean eta bere neska-bikotea etxean...)

2.3. Ikerketa gauzatu den testuingurua

Ikerketa hau, Bilboko Txurdinaga auzoan kokatuta dagoen Ikastola kontzertatu batean gauzatu da. Ikasle talde bitan galdetegi bat pasatu da, ikasleen bokazioei buruzko informazioa jaso eta ondoren emaitzak landu eta ondorioak ateratzeko. Txurdinaga Bilboko auzo bat da, 18.000 biztanle inguru dituen eta hezkuntza eskaintza handia duena. Familien perfilari dagokionez, euskalduna da, euskara maila nahiko altua izanik. Horretaz aparte, familien maila sozioekonomikoa nahiko altua da, ikastolak dituen ezaugarrien arabera. Esan beharra dago etorkinen zenbakia ikastola honetan ez dela oso handia, ikasle gehienak Bilbo bertakoak edo ingurukoak izanik.

2.4 Parte hartzaileak

Aztertua izan den laginari dagokionez, ikastolako 2015-2016 urteko 5. mailako bi talde aukeratu dira, 5.b eta 5.d, hain zuzen ere. Sexu aldetik lagina nahiko orekatuta dago, izan ere klaseko ikasle kopurua nahiko handia da, guztira 51 ikasle izanik (28 neska eta 23 mutil). Ikasle hauek D ereduan ikasten dute, hau da, irakasgai guztiak euskaraz lantzen dute honako bost irakasgai hauek izan ezik: *Gaztelania, Ingelesa, Art English, Science eta Robotika*.



1. Grafikoa: Ikasleen banaketa sexuaren arabera

Gurasoen maila eta egoera sozioekonomikoa ezagutu ahal izateko, gurasoen lanbideei buruz galdetu zitzairen.

GURASOEN LANBIDEAK	%AMA	%AITA
Fabriketan	0%	12%
Zaintza	6%	2%
Garbiketa	4%	0%
Irakasleak	8%	4%
Osasuna	8%	2%
Enpresak	6%	12%
Abokatuak	4%	2%
Idazkariak	10%	4%
Ingeniaria	12%	16%
Teknikari	0%	14%
Artista	0%	2%
Langabezi	8%	2%
Bestelakoak	22%	27%

2.Taula: Gurasoen lanbideak.

2. taulan ikusi daitekeen moduan, ikasleen maila sozioekonomikoa nahikoa altua da, izan ere guraso gehienek lan egiten dute eta oso gutxi aurkitzen dira langabezian. Nabarmentzeko da, adibidez ingeniaria arloan, ama eta aiten arteko tarte oso txikia dela. Aldiz, oraindik zaintza eta garbiketa arloan, nahiz eta txikia izan, amen portzentajea (%6 eta %4) oraindik handiagoa dela aitekin konparatuz (%2 eta %0).

2.5 Ikerketa tresna

Aurretik aipatutako helburuak eta ikerketa galderak kontuan izanda, galdetegi bat sortu da ikerketa tresna gisa Garcia et al. (2002) eta Nuño eta Rico (2013) ikerketetan erabilitako galde-sortetatik moldatuta izanda (1. ERANSKINA).

1. Lehenengo atal honetan haien bizitzari buruzko galdera laburrak biltzen dira. Baliagarria izan da gaian murgiltzen hasteko eta haien bizitzan eragina duten eragileei buruz hausnartzeko; baita haien maila sozioekonomikoa zein den jakiteko.

1. *Zer zara? Neska/Mutila*

2. *Adina*

3. *Zertan egiten dute lan zure gurasoek?* 4. *Zein dira zure gurasoen ikasketak*

5. *Zure etxean, nork? Egiten du janaria/Egiten ditu erosketak/...*

6. *Zein maiztasunekin egiten dituzu ondoko jarduerak?*

2. Ataleko galderak euren denbora librean zertan igarotzen duten jakiteko baliagarriak dira, batez ere haien jolasaldian. Galdera horien helburua estereotipatutako jolasak eta jarduerak (maskulinoztat edo femeninoztat jotzen direnak) egiten dituzten jakitea da.

7. *Aipa itzazu zure jolas gustukoena eta ordenatu ordenaren arabera.*

8. *Norekin jolasten duzu ikastetxean? Mutilekin? Neskekin?*

9. *Zertara jolasten duzu?*

3. Atalaren helburua haien egunerokotasunean estereotipoek zein eragina duten jakitea da. Honekin batera, lanbideei buruz dituzten aurre-ideiak ezagutzeko galdera bat dago. Hori guztia lortzeko, honako lau galdera nagusi hauek planteatu dira:

10. *Atsegin dituzu honako ikasgai hauek? Ordenatu Otik 7ra.*

10. galderaren bitartez jakin ahal izan da zeintzuk diren haien ikasgai gustukoena, eta ea sexuaren arabera desberdintasunak egoten jarraitzen diren ala ez.

11. *Lanbide hauetatik zenbatu Otik 10era.*

11. galderarekin, agertzen diren lanbide desberdinen artean zeintzuk diren haien gustukoena ezagutzea lortu nahi izan da, aldi berean, ea aukeratutako lanbidearekin zer ikusia duten gustukoena duten irakasgaiek.

Beste galdera bat (12.) maskulinoztat edo femeninoztat jotzen diren lanbideen aukeraketa izan da, zeintzuk diren haien pertzepzioak lanbideei buruz argi eta garbi ikusteko.

12. Sailkatu hurrengo lanbideak esanez lanbide bakoitza nori dagokion: NESKA, MUTILA edo BIAK

Amaitzeko, azkenengo 13. galdera irekiarekin ikasleek etorkizunean haien burua (bizitza-proiektua) nola ikusten duten, batez ere lanbideetan oinarritua, aztertzea bilatu da.

13. Deskribatu zure burua 20 urte barru.

3. Lanaren garapena

Behin helburuak, ikerketa-galderak eta ikerketa tresna finkatuta, garrantzitsua da lanaren nondik norakoak azaltzea. Lehenengo pausua marko teorikorako bibliografia bilatzea eta aztertzea izan da. Behin hori eginda, galdetegia sortu da, beti kontuan hartuz zeintzuk diren aukeratutako lanaren helburuak.

Jarraitzeko praktikak egiten ari nintzen lekuan, Txurdinagan hain zuzen ere, galdetegi hau gauzatu da. Horretarako, tutorearekin hitz egin ondoren, izan ere Lehen Hezkuntzako koordinatzaile baitzen, eta bi talde desberdinen irakasleekin adostu zen galdetegia egitea. Ez ziren inolako zailtasunak sortu ikerketa egin ahal izateko. Bi talde hauek, aurretik aipatu den moduan, 5.b eta 5.d izan ziren. Bi egun desberdinetan bete zen galdetegia eta ordubete erabili zen galdetegia egiteko. Zertarako zen galdetegia eta banan banan galdera guztiak azaldu zitzaizkien. Jarraian haien kabuz hasi ziren galdetegia egiten.

Galdetegiaren galdera guztiak, bat ezik (13.a), itxiak zirenez lortutako datuak era kuantitatiboan aztertu dira. Beste alde batetik, galdera irekiari dagokionez datu kualitatiboak interpretatu dira. Alabaina, teknika kuantitatiboa izango da ikerketa honen prozesu nagusia.

4. Emaitzak

Atal honetan galdetegitik lortutako emaitzak galdera bakoitzaren arabera sailkatuak azaltzen dira. Nahiz eta aztertutako lagina nahiko handia izan, 51 ikasle hain zuzen ere, honek ez du esan nahi lortutako emaitzak jendartearen islapena izan behar duenik. Izan ere alderdi desberdinak kontuan hartu beharko litzateke, hala nola, maila sozioekonomiko desberdinak. Hau argitu eta gero, arestian aipatu den moduan emaitzak atal desberdinetan azalduko dira.

1. ATALA

5. Zure etxean, nork?

ZER?	%AITA	%AMA	%BIAK
Egiten du janaria	14	39	47
Egiten ditu erosketak	4	24	73
Garbitzen du	8	43	49
Josten du	0	90	10
Garbitzen du kotxea	63	4	33
Gidatzen du	39	6	55
Konpontzen ditu etxeko gauzak	78	4	18
Irakurtzen du egunkaria	39	6	55

3. Taula. Gurasoek etxean egiten dituzten jarduerak.

3. taulan argi ikusi daiteke oraindik indarrean dauden zenbait estereotipo. Adibidez, josteta, %90, eta garbiketa lana %43, amek egiten dute. Bestetik, kotxea garbitzea, aitari dagokio %63. Hala ere, aldaketak ikusi daitezke, adibidez janaria eta erosketak egitea, biek egiten baituten %47 eta %73.

6. Zein maiztasunarekin egiten dituzu ondoko jarduerak?

IKASLEAK	Inoiz ez %		Noizbehinka%		Askotan %		Ez dakit %	
	N	M	N	M	N	M	M	N
N= neska, M= mutila								
Programa informatikoa instalatu	50	30	25	35	7	9	18	26
Sare sozialetan ibili	39	39	50	35	4	13	7	13
Otordua prestatu	14	17	43	52	39	13	4	17
Egunkaria/aldizkariak irakurri	64	57	29	17	0	17	7	9
Botoi bat josi	71	65	21	4	0	4	7	26
Arropa lisatu	64	70	18	1	11	4	7	9
Etxe-tresnak, jostailu elektronikoak, irratia eta abar konpondu	54	22	32	43	4	17	11	17
Eguraldia aztertu	54	57	36	17	11	4	0	22
Ohea egin	11	9	18	30	71	52	0	9
Xurgatzailea edo erratza erabili	29	22	54	43	18	22	0	13
Ume txikiak zaindu	43	43	39	26	4	13	14	17
Etxeko hondakinak gaika sailkatu eta dagokien zakarrontzian bota	7	9	46	26	36	43	11	22

4. Taula. Ikasleek egiten dituzten zenbait jarduerak sexuaren arabera.

4. taulak erakusten duen moduan, gehienak ez dituzte ia inoiz egiten adierazi diren jarduerak. Hala ere estereotipatutako zenbait ekintza erakusten dira. Adibidez, otordua prestatzean, nesken %39 askotan egiten dutela adierazi dute, mutilek aldiz, bakarrik %13. Aldi berean, ohea egitearen portzentajea, neskena mutilena baino handiagoa da. % 71 bat %52 baten aurrean.

2. ATALA

7. Aipa itzazu zure jolas gustukoak eta ordenatu gustuaren arabera.

NORK?	MAHAI JOKOAK (Kartak, monopoly...)	KIROLA (Futbola, saskibaloia...)	TEKNOLOGIA (Ordenagailua, Play Station, tablet...)	BESTELAKOAK (Zelai erreta, arrapaketa ...)
MUTILA	2	8	10	3
NESKA	7	5	7	9

5. Taula. Ikasleen jolas gustukoak, sexuaren arabera.

5. taula horretan erakusten denez, ikasleen gustu desberdinak ikusi daitezke, sexuaren arabera. Mutilek gehiago jotzen dute kirolek eta teknologietara. Aldiz, nesken emaitzak askoz ere orekatuta daude.

8. Norekin jolasten duzu ikastetxean?Mutilekin?Neskekin?

NOREKIN	%MUTILA	%NESKA
MUTILEKIN	78	0
NESKEKIN	0	68
BIEKIN	22	32

6. Taula. Norekin jolasten dute ikasleek.

Galdera honen bidez ikusi daiteke nola oraindik aitzinean bezala neskek eta mutilek haien sexu berekoekin jolasten jarraitzen dutela. Nahiz eta batzuek biekin jolasten dutela adierazi, oraindik neskek neskekin eta mutilek mutilekin jolasten duten portzentajeak oso altuak dira. Mutilen %78 mutilekin eta nesken %68 neskekin jolasten dute.

9. Zertara jolasten duzu?

NORK?	FUTBOLA	SASKIBALIOA	BESTELAKOAK	KARTAK	HITZ EGIN	SOKA
MUTILAK	17	0	1	3	2	0
NESKAK	2	7	5	5	5	4

7. Taula. Zertara jolasten dute jolastokian, sexuaren arabera.

Galdera honetan argi ikusi daiteke jolastokian bakoitzak norekin jolasten duen. Galdera honetan zenbait estereotipo agertzen jarraitzen dira, hala nola mutil gehienak jolasten dute futbolera eta bakarrik neskek jolasten dute sokara. Bestetik, bakarrik neskek jolasten dute saskibaloira.

3.ATALA


10. Atsegin dituzu honako ikasgai hauek? Ordena itzazu 0tik 7ra.

IRAKASGAIA	%NESKA	%MUTILA
Arte hezkuntza	68	60
Gorputz hezkuntza	58	75
Euskara	53	56
Gaztelania	53	45
Atzerriko hizkuntza	61	52
Matematika	49	69
Science	47	44


8. Taula. Gogoko dituzten ikasgaiak.

8. taulan ikusi daitekeenez, neska eta mutilen arteko gustuak nahiko orekatuta daude. Hala ere, zenbait portzentaje besteak baino nabarmenak dira. Adibidez, nesken artean Arte hezkuntza (68%) ikasgaia gustukoena da, eta Matematikak (49%) eta Science (47%), ez dira ezta erdira heltzen. Mutilen kasuan, haien gustuko ikasgaia gorputz hezkuntza da, portzentaje handiarekin gainera (75%). Matematiketan ere portzentajea oso altua da neskekin alderatuz (%69). Bestetik, nesken moduan Sciencen oso portzentaje txikia adierazi dute (%44).

11. Lanbide hauetatik, zenbatu Oitk 10era.



2. Grafikoa. Neskek gogokoen dituzten lanbideak.



3. Grafikoa. Mutilek gogokoen dituzten lanbideak.

2. eta 3. grafikoetan ikusi daitekeenez, ikasleek lanbideei emandako balorazioak agertzen dira. Horien arabera, nesken artean nagusitzen diren lanbideak irakaslearena (%54) eta artistarenak (%46) dira. Nabarmentzekoa da ere kirolariaren lanbideari neskek balorazio altuak eman diotela, erdiak hain zuzen ere (%50). Bestetik, militarra

(%89), ingeniaria (%75) eta medikua (%68) balorazio baxuenak lortu dituzten lanbideak izan dira.

Mutilen kasuan, nagusitzen diren lanbideak kirolaria (%65) eta polizia (%52) dira. Balorazio baxuago lortu dituztenak aldiz, ile-apaintzailearena (%78), medikua (%70) eta erizaina (%65) izan dira.

12. Sailkatu hurrengo lanbideak esanez lanbide bakoitza nori dagokion: NESKari, MUTILari, Blei.

NESKAK	%NESKari	%MUTILari	%Blei
Abokatua	0%	7%	93%
Medikua	4%	0%	96%
Erizaina	4%	11%	86%
Dendaria	11%	0%	89%
Irakaslea	4%	0%	96%
Kirolaria	0%	18%	82%
Artista	11%	4%	86%
Zientzialaria	4%	14%	82%
Arkitekto	0%	39%	61%
Suhiltzailea	0%	46%	54%
Polizia	0%	11%	89%
Ile-apaintzailea	36%	0%	64%
Astronauta	0%	43%	57%
Pilotua	0%	43%	57%
Sukaldari	7%	4%	89%
Politikoa	4%	18%	79%
Bankaria	4%	7%	89%
Informatikoa	0%	18%	82%
Ingeniaria	0%	32%	68%

9. Taula. Neskek sexuaren araberako egokitasunari buruz egindako lanbideen sailkapena.

MUTILAK	%NESKari	%MUTILAri	%Biei
Abokatua	0%	9%	91%
Medikua	4%	0%	96%
Erizaina	17%	13%	70%
Dendaria	4%	0%	96%
Irakaslea	22%	0%	78%
Kirolaria	0%	30%	70%
Artista	9%	13%	78%
Zientzialaria	4%	35%	61%
Arkitekto	0%	39%	61%
Suhiltzailea	0%	52%	48%
Polizia	0%	39%	61%
Ile-apaintzailea	35%	0%	65%
Astronauta	0%	52%	48%
Pilotua	0%	39%	61%
Sukaldari	9%	9%	83%
Politikoa	0%	13%	87%
Bankaria	13%	0%	87%
Informatikoa	0%	30%	70%
Ingeniaria	0%	35%	65%

10. Taula. Mutilek sexuaren araberako egokitasunari buruz egindako lanbideen sailkapena.

Galdera hori ikasleen iritziak lanbideei buruz dituzten genero estereotipoak jakiteko baliagarria izan da. Bertan ikasleek norekin lotzen duten lanbide bakoitza adierazi da. 9. eta 10. taulek erakusten dutenez, esan beharra dago gehienek, bai neskek bai mutilek, biek lotzen dituztela lanbide gehienak. Hala ere zenbait emaitza nabarmentzen dira besteengandik. Nesken kasuan, %36ak ile-apaintzailearen lana, emakumearekin bakarrik lotzen dute, eta berdin pentsatzen dute mutilen %35. Bestetik nesken %43, pilotua eta astronautaren lanbideak mutilentzat ikusten dute, baita mutilen %52 eta %39. Amaitzeko, nabarmentzekoa da nola nesken %46 suhiltzailearen lana mutilarentzat ikusten duten, baita mutilen %52.

13. Deskribatu zure burua 20 urte barru, horretarako zure egun arrunt bat kontatu.

Galdera honen interpretazioa egiteko, irekia denez, kategoria batzuk sortu dira, ikertzailea eta lan honen zuzendariaren arteko triangeluazioaren bidez adostuta.

Hala ere, galdetegiaren hainbat atalek ezin izan dira zifren bidez interpretatu, eta eredu triangeluarra erabili da, hau da, tutorea, gai bereko beste ikaslea eta hiruron artean

interpretatu dira galdera irekien erantzun horiek, ondorioz, atal hori ikerketa kualitatiboa dela agerian utzi nahi izan da.

<i>ETORKIZUNA</i>	<i>NESKAK</i>	<i>MUTILAK</i>
<i>LANA</i>	-7 artistak izan nahi dira. -3 kirolariak -9 zientziekin erlazionatuko lanetan -2 irakasleak -7 bestelakoak	-1 artista izan nahi da. -5 zientzia arloetan egin nahi dute lan -3 militar eta 3 polizia -8 bestelakoak
<i>FAMILIA</i>	-7 ezkontuta -8 seme-alabekin -8 haiek bakarrik bizi edo lagun batekin	-4 ezkontuta -6 seme-alabekin -3 bakarrik -1 neska lagunarekin
<i>AISIALDIA (denbora librea, etxekoa ardura, zaintza ...)</i>	-Haiek zaintza etxe etxeko lana (3)	-2 etxeko zaintza -7 futbolera jolastu
<i>ETXEBIZITZA</i>	-9 luxuzko etxeak -5 etxe arruntak	-9 luxuzko etxeak

11. Taula. Etorkizuna 20 urte pasa ondoren, sexuaren arabera.

Haien etorkizunari buruz pentsatzen dutenean, ikus daiteke oso iritzi desberdinak daudela, non estereotipatutako ideiak eta estereotipatu gabeak aurkitu daitezkeen. Adibidez, 9 neska zientziekin erlazionatutako lanbideetan lan egitea gustatuko litzaieke, mutilak baino gehiago. Bestetik, mutilen artean militar eta polizia lanak dira eskaera gehien dauzkatenak. Bestetik, nesken artean 8 erabaki dute bakarrik bizi nahi dutela, mutilen artean aldiz, bakarrik 3. Etxeko lanari dagokionez, nahiz eta oso gutxi izan (3 neska bakarrik) haien burua etxeko lanak eta umeak zaintzen ikusten dute, mutilen aldetik bakarrik 2 aipatzen dute.

5. Ondorioak

Ondorioetan zentratuz, galdetegian erantzundakoa behin aztertuta, planteatutako helburuen eta ikerketa galderen arabera, zenbait ondorio atera daitezke. Hasteko planteatutako ikerketa galderen bitartez, ondorio desberdinak aztertzen dira.

- **Ikasleak aisialdian erabiltzen dituzten jostailuak estereotipatuak izaten jarraitzen dira?**

Galdetegiaren bigarren atalean ikusi ahal izan den moduan, ikasleek oraindik estereotipatutako jolasetara jotzen dute. Mutilen kasuan gehienak kirolean baino ez dira aritzen, neskek aldiz, aukeratutako jolas eta jostailuetan aniztasun handiagoa erakusten dute. Estereotipatutako jolasek, aisialdian taldeen antolakuntzak (mistoa ala segregatua) eta jarrerek neska eta mutilen arteko segregazioa egoten jarraitzen dela erakusten dute. Hau da, neska eta mutil gehienak haien berdinekin jolasten dute: neskek neskekin eta mutilek mutilekin. Horrek ikaragarritzko eragina izan daiteke haien identitatea eraikitzeko orduan, izan ere rolak eta estereotipoak barneratzen hasi daitezke.

- **Lanbide maskulinoak eta femeninoak ikasleen pentsamoldean egoten jarraitzen dira?**

Lanbide guztiak pertsona guztientzako izan beharko litzateke. Hau da, ez litzateke neskentzako eta mutilentzako lanbideen arteko bereizketa egin behar. Hori kontuan izanik, jakin nahi izan da ea ikasleek horrela pentsatzen jarraitzen duten edo ez.

Ikasleen emaitzak kontuan hartuz, esan behar da erantzunak nahiko positiboak izan direla. Izan ere, lanbide gehienak bi sexuekin erlazionatzen dituzte. Hala ere, badaude salbuespen batzuk. Adibidez, bai nesken eta bai mutilen portzentaje handia ile-apaintzailearen lana neskarekin lotzen dute, eta pilotu, astronauta eta suhiltzailearena aldiz, mutilekin. Esan beharra dago, neska gehiagok identifikatzen duela lanbideak bi sexuekin, eta ez bakar batekin.

Desberdintasun horiek marko teorikoan aipatutako asimilazioaren bitartez transmititu ahal izan dira (García eta al., 2002), hau da, etxean zein gizartean ikusten dituzten jarrera eta irudien bitartez. Hala ere, aipatutako azken datu hauek erakusten dute nesken

kasuan, gizartean egon daitezkeen estereotipoak eragin gutxiagoa dituztela mutilekin konparatuz.

- **Ikasleen erabakiak lanbideei dagokienez gizonei eta emakumei egokitutako estereotipoen araberrakoak dira?**

Esan beharra dago galdera honi erantzuten duten emaitzak oso desberdinak izan direla. Alde batetik, gustuaren arabera aukeratutako irakasgaiei dagokionez, esan behar da irudi oso estereotipatuta erakutsi dutela. Nesken kasuan, arte hezkuntza izango litzateke haien gustukoaren irakasgaia, eta mutilena aldiz, gorputz hezkuntza. Horrek etxean bai eskolan nagusiengandik jasotzen duten tratua onduria izan daiteke, baita gizartean sortzen diren aurreiritzien eraginez, bereziki hedabideen bidez. Adibidez, neskek gorputz hezkuntzarako erakusten ez duten lehentasun horrek honako aurreiritzi hauen araberrakoak izan daitezke: mutilak neskek baino hobek dira indartsuagoak direlako edo neskek ahulak direlako.

Halaber, lanbideetan adierazitako gustuak oso desberdinak izan dira. Nesken %50ak adierazi du kirolaria izatea gustuko dutela. Hala ere zenbait estereotipo agertzen jarraitzen dira, hala nola neskek irakaslearen lana aukeratu dute eta mutilek aldiz, kirolarekin eta segurtasun-indarretako arlokoekin lotura duten lanbideak (polizia, militarra) aukeratu dituzte.

- **Etorkizunari begira, bizitza- eredu eta estereotipo tradizionalak irudikatzen dituzte? (neskek ezkontuta eta seme-alabekin, mutilak lanean eta bere neska-bikotea etxean ...)**

Esan beharra dago atera diren emaitzak nahiko deigarriak izan direla, izan ere espero ziren emaitzak baino askoz desberdinak izan dira. Alde batetik, 9 neskek (32%) zientziekin lotutako lanbideak aukeratu dituzte, kopuru hori mutilena baino handiagoa. Hau nahiko nabarmena izan daiteke beste ikerketa batzuekin konparatzen baditugu (Elhuyar, 2012). Horrek esan nahi du aldaketak gertatzen ari direla. Hala ere, nahiz eta orain interesa erakutsi, denbora aurrera joan ahala interes hau galdu egiten da, DBHtik aurrera hain zuzen ere (Nuño, 2012).

Etxeko lana eta zaintzari dagokionez, nahiz eta gutxi izan, neskek bere burua etxeko lanetan eta zaintzaren arduran ikusten dituzte haien buruak.

Helburuei dagokienez honako ondorio hauek atera daitezke:

Lehenengo helburu nagusiarri dagokionez, 5. mailako ikasleek dituzten pertzepzioak etorkizuneko ikasketei eta lanbide bokazioei buruzkoak antzematea izan da, sexuaren arabera. Datu guztiak kontuan hartuta, ikusi daiteke nola oraindik umeez gizariek transmititutako genero rol eta estereotipoak barneratzen dituzten, maskulinoz eta femeninoz jotzen diren lanbideak aukeratu.

Bigarren helburuari dagokionez, 5. mailako ikasleek etorkizunari begira dituzten asmoak lanbideei dagokienez ezagutzea, argi geratu da aldaketak ikusten direla, eta honek esan nahi du pixkanaka-pixkanaka ikasleek estereotipoetatik urruntzen ari direla, bakoitzak bere erabakiak hartuz kontuan izan barik lanbideak edo ekintzak tradizionalki maskulinoak edo femeninoak izan diren.

Amaitzeko argi geratzen da oraindik aldaketak egin behar direla eta horrenbestez bide luzea geratzen dela ematen diren aldeekin amaitzeko eta ikasleek estereotipatu gabeko aukerak egin ahal izateko.

6. Ikerketaren ahultasunak eta hobetzeko proposamenak

Lehenengoz eta behin esan behar da egindako ikerketa honek jendartean egon ahal diren arazoak edo errealitatea ez dituela zehazki erakusten. Izan ere, zenbait ahultasun aurkitu daitezke, hala nola, eskola bakar batean egitea. Ondo egongo litzateke eskola desberdinetan ikerketa gauzatzea, izan ere aukeratutako ikastolaren maila sozioekonomikoa beste batzuekin konparatuz, agian emaitzak desberdinak izango dira.

Beste alde batetik, ikusi ahal izan den moduan, galdetegia hobetzeko eta ondorioz emaitzak hobeto interpretatzeko, egokia izango zen galdera ireki gehiago proposatzea. Horrela, emaitzak hain deskriptiboak izan ordez, arrazoi gehiago aurkitu ahal izango ziren proposatutako galderei. Ondo legoke ere, ikerketa osatzea metodologia kualitatiboekin, hala nola, eztabaida-taldeak edo elkarrizketak.

7. Hezkidetzaren sustatzeko zenbait proposamen

Irakaskuntzari dagokionez, zenbait hobekuntza beharrezkoak direla agerian geratu da. Hasteko irakasleei kontzientziatu beharra dago. Askotan, irakasleek berdintasunean hezten dutenaren ideia buruan sartuta daukate, baina gehienetan ez da horrela. Horregatik, egin behar den lehenengo gauza irakasleei hezkidetzari buruzko informazioa eskaintzea da, Eusko Jaurlaritzak (2013) sortu zuen *Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren* bitartez.

Amaitzeko, irakasleek hori aplikatzeko unitate didaktiko edo ikasleei gai hori proiektuen bidez burutzeko aukera ematea ondo egongo litzateke. Horretarako, interneten bertan adituen lanak aurkitu daitezke oinarritzat hartzeko eta Emakundeko baliabideak ere interesgarriak dira, izan ere hezkidetzarako proposamenak aurkezten dituzte. Modu honetan berdintasunean hezteko eta hazteko helburua lortzeko atak irekiko dira, estereotipoz beteta dagoen gizartea pixkanaka-pixkanaka apurtuz joateko, eta azkenean ikasleek sexismo gabeko aukerak hartu ahal izateko.

Erreferentzia bibliografikoak

- Alario, A. eta Anguita, R. (1999). ¿La mitad de la humanidad forma parte de la diversidad? El sexismo en las aulas y la coeducación como alternativa. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 36, 33-43.
- Arenas, A (2006). *Triunfantes perdedoras. La vida de las niñas en la escuela*. Barcelona: Graó.
- Bartolomé, M. (1993). Trayectoria educativa de la mujer: la lucha inacabada. En C.Flecha eta I. Torres (eds), *La mujer, nueva realidad, respuestas nuevas*. (49-84). Madrid: Narcea.
- Burn, S.M (1996): *The Social Psychology of Gender*. New York: McGraw-Hill.
- Del Amo, M. (2009). La educación de las mujeres en España: de la “amiga” a la Universidad. *CEE Participación Educativa*, 11, 8-22.
- Elhuyar Fundazioa (2012). *Euskal Herriko gazte eta nerabeen zientzia eta teknologiaren pertzepzioa 2011*. Vitoria-Gasteiz: Dpto. de Educación, Universidades e Investigación, Gobierno Vasco; Cátedra de Cultura Científica.

Emakunde (2005). *Hezkidetza Euskal Autonomia Erkidegoan. Bilakaera eta etorkizuneko estrategiak*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.

Emakunde (2016) . Martxoaren 8ko kanpaina. 2016-04-02an hemendik hartuta:

<http://emakunde.blog.euskadi.eus/eu/2016/02/martxoaren-8ko-kanpainak-nesken-eta-mutilen-arte-an-desberdintasunak-eragiten-dituzten-mezuen-gainean-ohartaraziko-du/>

Espin, J., Rodriguez, M^aL., Donoso, T., Dorio, I., Figuera, P., Morey, M., Rodriguez, M. eta Paz, M.(1996). *Análisis de recursos educativos desde la perspectiva no sexista : revisión de un cuaderno para tomar decisiones vocacionales*. Barcelona: Laertes.

Eusko Jaurlaritz (2013). *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren*. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila 2016/09/15ean hartuta hemendik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_conviven/adjuntos/coeducacion/920006c_Pub_EJ_hezkidetza_plana_c.pdf

Fabra, M.L. (1996). *Ni resignadas ni sumisas, Técnicas de grupo para la socialización asertiva de niñas y chicas*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona.

Ayuntamiento de Fuenlabrada (2011). *Profesiones sin género. Guía de Orientación Profesional sin sesgo de Género*. Fuenlabrada: Ayuntamiento de Fuenlabrada. Concejalía de Igualdad.

Garcia, A., Lomas, C., Concepción, G., Muñiz, B., Balbuena, A., Villaverde, A. eta Álvarez, M. (2002). *Materiales para la observación y el análisis del sexismo en el ámbito escolar*. Gijón: Centro del Profesorado y de Recursos de Gijón.

Livier, B. (2003). *Construyendo la equidad de género en la escuela primaria*. Mexico DF. 2016-02-19an hemendik hartuta:

http://cedoc.inmujeres.gob.mx/documentos_download/100601.pdf

Lomas, C. (1999). *¿Iguales o diferentes? Género, diferencia sexual, lenguaje y educación*. Barcelona: Paidós.

Nuño, T. (2012). *Hezkuntza teknozientifikoa*. UPV/EHUko Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Masterra (Berezko titulua). Hezkuntza Aipamena. Argitaratu gabea.

- Nuño, T. eta Rico, A. (2013). *Zientziari so-Mirando a la ciencia, un programa para la promoción de vocaciones científico-tecnológicas superando los estereotipos de género en niñas y niños de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. IX Congreso Internacional de Enseñanza de las Ciencias. Simposio: 3.9. INNOVACIÓN EN CIENCIA Y TECNOLOGÍA DESDE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO.
- Reizabal, L., Eldua, M. eta Areizaga, I.(2015). Zergatik hezkidetzat? UPV/EHUrekin koedizioan argitaratua. *Genero-berdintasunean hezteko gida*. 14-35.
- Subirats, M. (1991). La educación como perpetuadora de un sistema de desigualdad: la transmisión de estereotipos en el sistema escolar. *Cuadernos de pedagogía*, 10, 44-50.
- Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: La coeducación hoy. *Revista Iberoamericana de Educación*. 6, 49-78.
- Salas García, B. (1997). *Ikastetxearen hezkidetzat eredu egiteko gida*. Gasteiz: Emakunde, 2016-04-02an hartua, hemendik:
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/es_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.cas.pdf
- Tomé, A. eta Rambla, X. (2001). *Contra el sexismo. Coeducación y democracia en la escuela*. Madrid: Síntesis.

1.ERANSKINA

Saida Castresana

GALDETEGIA

1. Zer zara?

- Neska
- Mutila

2. Zein da zurea adina?

3. Zertan egiten dute lan zure gurasoek?

- Ama:
- Aita:
- Beste ama edo aitarik edo familia-tutoreak:

4. Zein dira zure gurasoen ikasketak:

Lehen Hezkuntza	Erdi mailako gradua Zein?
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	Goi mailako gradua Zein?
Batxilergoa	Unibertsitateko ikasketak Zein?
Bestelako ikasketarik Zein?	

5. Zure etxean, nork?

EGITEN DU JANARIA	
EGITEN DITU EROSKETAK	
GARBITZEN DU	
JOSTEN DU	
GARBITZEN DU KOTXEA	
GIDATZEN DU	
KONPONTZEN DITU ETXEKO GAUZAK	
IRAKURTZEN DU EGUNKARIA	

6. Zein maiztasunekin egiten dituzu ondoko jarduerak?

	Inoiz ez	Noizbehinka	Askotan	Ez dakit
Programa informatikoa instalatu				
Sare sozialetan ibili				
Otordua prestatu				
Egunkaria/aldizkariak irakurri				

Botoi bat josi				
Arropa lisatu				
Etxe-tresnak, jostailu elektronikoak, irratia eta abar konpondu				
Eguraldia aztertu (kanpoko temperatura, hezetasuna etab.)				
Ohea egin				
Xurgatzailea edo erratza erabili				
Ume txikiak zaindu				
Etxeko hondakinak gaika sailkatu eta dagokien zakarrentzian bota				

7. Aipa itzazu zure jolas gustukoenak eta ordenatu gustuaren arabera: (3-4)

8. Norekin jolasten duzu ikastetxean? Neskekin? Mutilekin?

9. Zertara jolasten duzu?

10. Atsegin dituzu honako ikasgai hauek? Ordena itzazu 0tik 7ra. 0k esan nahi du ez duzula batere gustuko eta 7ak oso gustuko duzula.

- a. Arte hezkuntza
- b. Gorputz hezkuntza
- c. Hizkuntzak: Euskara
- d. Hizkuntzak: Gaztelania
- e. Hizkuntzak: Atzerriko hizkuntza (ingelesa)
- f. Matematika
- g. Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezaguera (science)

ETORKIZUNA

11. Lanbide hauetatik, zenbatu 0tik 10era : 0 ez duzu gustuko; 10 oso gustuko duzu.

- Medikua
- Abokatua
- Kirolaria
- Artista
- Irakaslea
- Zientzialaria
- Arkitekto

- Suhiltzailea
- Polizia
- Ile-apaintzailea
- Abokatua
- Ingeniaria
- Sukaldaria
- Militarra
- Erizaina
- Beste lanbideren bat gustuko baduzu aipatu hemen eta baloratu:

12. Sailkatu hurrengo lanbideak esanez lanbide bakoitza nori dagokion: NESKA, MUTILA edo BIAK

LANBIDEA	NESKA	MUTILA	BIAK
Abokatua			
Medikua			
Erizaina			
Dendaria			
Irakaslea			
Kirolaria			
Artista(margolaria, abeslaria...)			
Zientzialaria			
Arkitekto			
Suhiltzailea			
Polizia			
Ile-apaintzailea			
Astronauta			
Pilotua			
Sukaldari			
Politikoa			
Bankaria			
Informatikoa			
Ingeniaria			

Hauetaz aparte, zein beste lanbide ezagutzen dituzu? Aipa itzazu eta esan norekin lotzen dituzun.

LANBIDEA	NESKA	MUTILA	BIAK

13. Deskribatu zure burua 20 urte barru, horretarako zure egun arrunt bat kontatuz, esnatzetik berriro ere lokartu arte. Nola biziko zara? Zein da, gaur egun, zure proiektua?